

Bermeoko Inmigrazio Plana (2009-2012)



Bermeoko integratorako eta bizikidetzarako proposamenak

Ekimena:

GIZARTE ONGIZATERAKO
UDAL PATRONATUA
Bermeo

Finantzaketa:



ELISKO JAQUIERARITZA
GORIERNO BASCO

Departamento de Vivienda
y Asuntos Sociales

Aurkibidea

Orria

SARRERA	3
1. ABIAPUNTUA	4
<input type="checkbox"/> Planeko oinarriak	4
<input type="checkbox"/> Oinarrizko printzipio orokorrak	5
<input type="checkbox"/> Oinarrizko printzipio operatiboak.....	6
2. PARTE-HARTZE PROZESUAREN BILAKAERA	8
<input type="checkbox"/> Tokiko Inmigrazio Batzordea	8
<input type="checkbox"/> Lan Metodologia	11
3. 2009-2012 EKINTZAPROGRAMA	13
<input type="checkbox"/> Jarraibide lerroak	13
<input type="checkbox"/> Proposaturiko ekintzen koadroa	14
4. GOMENDIO OPERATIBOAK	33
<input type="checkbox"/> Hasierako onartzea eta hedaketa	33
<input type="checkbox"/> Euskarri eta baliabide zehatzak zuzentzea	33
<input type="checkbox"/> Jarraiko ebaluaketa eta segimendua.....	34
ESKERRAK	35

ERANSKINAK

1. Eranskina. Abiapuntua
2. Eranskina Batzordearen aktak

Sarrera

Orain dela gutxi, Bermeon bizi den biztanle atzerritarri buruzko Diagnostiko bat egin zen, eta lan horri jarraipena emanaz, pertsona anitz eta ugariz osaturiko talde bat Inmigrazio Tokiko Plan bat egiten aritu da azken hilabeteetan, plana datorren lau urteetan gauzatzeko asmoz..

Baieztaatu besterik ezin dugu egin denboraldi honetan egindako elkarrenganako lana esperientzia baikorra izan dela eta nahiz eta Planaren buruketak bulegoan egiteak baino denbora gehiago eramanean, zalantzarik gabe elkarrezko eta lankidetzako esperientzia honetan egindako ahaleginek pena merezi izan dute.

Horrela izanik, pentsatzen dugu abiapuntua ona dela benetako **Tokiko** Plana gauzatzeko. Eta *tokikoa* esaten dugunean ez gaude pentsatzen geografikoki Bermeon kokatzen den planean, baizik eta batez ere bere gizarteratzean oinarrituriko planean; hau da, Udaletxeko saila edo nolabaiteko koordinatzaile batek Plana bideratzeaz gain, Bermeon bizi diren pertsona eta eragile guztiak protagonizaturiko Plan batean pentsatzen ari gara.



Argi dago Plan honen arrakasta partaidetza eta inplikazioaren menpe dagoela, besteak beste, udal sailena eta instituzioena, hezkuntza zentroena, elkarteena, eta abar. eta neurri handian ere, bere lankidetzak eta laguntza emateko prest egon beharko diren banakako pertsona ugariena ere, bai etorkinena edo bertokoa.

lido honetan, esan beharra dago prozesu guzti honetan pertsona askoren jarrera baikorra eta harkorra topatu dugula, esparru honetan denbora asko lanean dabiltzatenak eta etorkizunean ere lanean jarraitzeko asmoa dutenak, hau ezinbestekoa izanik.

Bestaldetik, itxaropentsua da jakiteak Bermeon epe motzean ez dirudiela biztanleriaren arteko bizikidetzak mehatxupearantz jartzen duen egoera larri edo liskartsua egongo denik. Horrek, nola ez, bidea errazten du eta eraginkorki aurreratzeak ahalbideratzen du, bidean izu gehiegirik egon gabe.

Azkenik, jarraian aurkezten dugun Plana aplikazio praktikoa izango duen **orientazio- eta erreferentzia-agiria** izango delakoan gaudela adierazi nahi genuke eta oso erabilgarria izango dela uste dugu, Bermeon pertsona atzerritarren integrazioa sustatzeko eta bizilagun guztien bizikidetzak hobetzeko.

1.- Abiapuntua

Plana egiterakoan oso agerian egon dira zenbait lerro nagusi, oinarri eta printzipio eran, hasieratik agiri honen filosofia, eredia eta garapen eraginkorra bideratu dituztenak:

1.1. PLANAREN OINARRIAK

Inmigrazio lgarren Euskal Planean ezarritako printzipioak, jarraibideak eta estrategiak **ondorengo lau kontzeptuak** ulertzeko eta aztertze gida izan dira, esparru honetan Tokiko Plana egiteko **ezinbestekoa izanik hauek horrela ulertzea:**

a) Inmigrazioa:

Euskadira heldu diren atzerritarren inguruan dauden aurreiritziak, beldurrak eta zurrumurruek gaindituz, inmigrazioaren fenomeno **baikorra eta beharrezkoa** dela hartzen da abiapuntutzat, euskal gizartearen aberastasunean era garrantzitsuan lagunduz, eta ez arlo ekonomikoan bakarrik, baita gizartean, kulturean, eta abarrean ere

Inmigrazioa fenomeno berri bat da. Oraindik ere inplikazio eta perfil ugari ditugu ezagutzeko, baina argi dago bere ezaugarritasunei erantzuten dien tratamendu zehatza behar duela.

Etengabeko prozedura dinamikoa den heinean, politika publikoak errealitate berriei erantzuten dien politikak egin beharko dituzte, zalantzarik gabe aldakorrak izango diren une bakoitzeko egoerei erantzunez.

b) Integrazioa:

Ez litzateke bidezkoa izango integrazioa norabide bakar batean planteatzea: hau da, pertsona atzerritarrek bere ingurura ahalik eta azkarren egokitzeko eginiko ahalegintzat hartzea, non bere nortasun guztiak galtzen dituzten.

Hori dela eta, integrazioa soilik emango da hartu-emaneko eta bi norabideko prozesu bat dela ulertzen denean, errespetuan eta ezberdintasunaren eskubidean oinarritua, ondorioz komunikazio, elkar harremanak eta topaketak bertako pertsonen eta atzerritarren artean sustatuz.

c) Hiritartasuna:

Oso zaila izango da atzerritarrek integrazio eraginkorra lortzea lehendik ez bazaie hiritarrak bezala onartzen, Euskadin hiritarrek dituzten eskubide eta betebeharrekin.

Hiritartasun kontzeptua barneratze ikuspuntutik eta ez baztertzearenetik ulertzeak ahalegin bat egitea exijitzen du: hiritartasuna nolabaiteko paperak edota dokumentuak izatera ez lotzea.

Hau posiblea den heinean, administrazioak erregularitasun eta irregularitasun artean egiten duen bereizitasuna gainditzeko saiatu beharko luke, gure artean zenbait urteetan ia klandestinitatean edota hirugarren mailako hiritarrak bezala bizi diren pertsona askoren egoera leunduz.

d) Inmigrazio politikak:

Komenigarria izango litzake Inmigrazio politikak bere nortasuna izatea, talde honetan soilik eragina dituzten arazo oso zehatzei erantzuten zaien neurrian. Aitzitik, ulertu beharko da Administrazioak sustatzen dituen beste gizarte politiketatik ahalik eta gertuen egon beharko direla.

Ezinbestekoa da giza eskubideak onartzean eta Euskadin bizi diren pertsona guztien giza duintasunean oinarrituriko politikak izatea, norberaren jatorria alde batera utzita.

1.2. OINARRIZKO PRINTZIOPIO OROKORRAK

Funtsezko kontzeptu hauek abiapuntutzat harturik, Plan honen bitartez Oinarrizko zenbait Printzipioen errespetua bermatu nahi da, besteak beste ondorengoak nabarmentzen direlarik:

a) Giza partaidetza:

Plana egiteko orduan printzipio honi garrantzi handia eman nahi izan zaio, inolako berezitasunik jarri gabe bertako biztanleria eta biztanleri atzerritarren artean.

Hasieratik ulertu da partaidetza hau ez zela bakarrik polita egiteko, **eraginkorra eta aktiboa** izan behar zela, egin diren ekarpenak eta iradokizunak entzunez eta oso agerian edukiz.

Horrela, partaide guztiek berdintasun egoeran izan dute hitza, baita atzerritarrek ere, eta horri esker Plan hau ez dago *inmigranteentzat* egina, baizik eta **inmigranteekin egina**, denon helburua baita integrazioa eta bizikidetzaren hobekuntza.

Aurrerago azaltzen den bezala, desiragarria litzateke parte-hartze dinamika hau indarrean mantenduko balitz **Planaren lau urteen zehar**, horretarako iradokitzen diren mekanismoak ezarri.

b) Aukera, eskubide eta betebeharren berdintasuna:

Aukera eta eskubideen berdintasunaren printzipioak **giza eskubideen titulartasuna ahalik eta gehien zabaltzea dakar**. Eta ez gaude eskubide zibilaz soilik hitz egiten, baizik eta giza eskubideaz eta eskubide ekonomiko eta kulturaletaz, guzti hauek Bermeon bizi diren pertsona guztien artean zabaldu behar direlarik, bere nazionalitatea edota jatorria zein den alde batera utzita.

Baina benetako berdintasunak **betebeharren** zabalkuntza dakar baita ere, **bertoko biztanleri eta biztanleri etorkinen artean ezberdintasunik ez daitezen egon**, ez gehiagogatik ezta gutxiagogatik ere. Aspektu hau ere oso agerian egon da Plana egin den bitartean.

c) Erantzukizun publikoa, erantzunkidetasun sozialarekin

Pertsona atzerritarren eta bertakoen arteko integrazioa lortzeko lana lehenengoz instituzioen erantzukizuna izan arren, egia da baita ere helburu hau ez dela lortuko bertoko komunitatearen eta osatzen duten pertsonen inplikazio argia ez badago.

Hori dela eta, Tokiko Plan honen bitartez administrazioa, eragile sozialak eta Bermeoko hiritarrak tartean sartu nahi izan dira, giza komunitate berdinean bizilagun guztien barneratze aurre-pausuak emateko.

d) Sexu arrazoiengatiko diskriminaziorik ez:

Oraindik ere emakumeek gure inguruan pairatzen duten diskriminazioa, hare latzagoa da emakume etorkinen kasuan. Ondorioz, arreta berezia merezi duen gaia da.

Emakume eta gizon etorkinen artean dauden ezberdintasunei -kasu batzuetan hain sakonak direnak- aurre egiteko beharra, oinarritzko printzipioa da, zeharkako -faktorea izan behar duelarik. Ondorioz, Plan osoan agerian egoteko saiakuntza egin da.

Era berean, Plana indarrean dagoen bitartean beharrezkoa izango da emakume etorkinek pairatzen dituzten genero diskriminazioak salatze eta zuzentzeko baliagarriak diren aztertze eta galdeketa mekanismoak ezartzea, kontuan izan behar baitugu diskriminazio egoera hauek integrazio prozedurari zailtasun larriak gehitzen diotela.

e) Kulturartekotasuna:

Kulturartekotasunaren printzipioak kultura aniztasunaren egoera gaitzetzaren apustu argia da. Kultura aniztasuna kultura ezberdinen gehitzea baita, puzzle berdineko pieza banatuak bezala, beraien artean komunikatu gabe.

Hori dela medio, Bermeon benetako kulturarteko giza-harrera izateko etorkinen biztanleriaren sustraiak suntsitzen edo desagerrarazten saiatzen ez diren espazioak sortzea beharrezkoa da, tokiko komunitatearen kide guztien elkarrekiko ekimen baikorra sustatuz, komunitate hau gero eta anitzagoa izanik.

Hori posible izateko beharrezkoa da egokitze eta onartze prozedura bat ematea, norberaren kulturarekin heltzen diren etorkinen eta Bermeoko gizartearen artekoa. Ondorioz, integrazioa posiblea izateko **eta elkarrezko bizikidetzeta eta giza lotzearen proiektua** lortzeko ezinbestekoa da bermeotarrek jarrera positiboa edukitzea.

Elkarren arteko errespetua eta tolerantzia, ondo praktikatzen badira, elkarren arteko aberastasuna sortuko da, Bermeoren kasuan are bereziagoa izango dena, **udalerria euskalduna izateak dituen inplikazio sakonak eta positiboak** direla eta.

1.3. OINARRIZKO PRINTZIPIO OPERATIBOAK

Funtsezko kontzeptuak era zehatzean interpretatzeak, hala nola deskribatu ditugun oinarritzko printzipio orokorren errespetatzeak, nola ez, bere ondorio praktikoak eduki behar ditu.

Horrek bere islada izan du Plana egiteko eredua eta prozedura aukeratzeko orduan, une guztietan agerian eduki diren zenbait **jarraibide** behin eta berriro azpimarratuz, besteak beste, ondorengoak nabarmentzen direlarik:

a)

Integraltasuna:

Integrazioak arlo sozialean, familiarrean, ekonomikoan, kulturean...inplikazio zuzenak dituenez, Planean ikuspegi **integraletik** lan egitea saiatu gara, eta ez sektoreka, udal mailan eskua hartzea erabaki den bost arloak oro har aztertuz.

b) Zeharkakotasuna:

Zeharkakotasunak integraltasunaren horizonteak are gehiago zabaltzen du eta udal mailako jarduera arlo ezberdinen inplikazioa sustatzera eramaten gaitu, guztien arteko gehitzea bilatuz. Horrela, atzeritarren integrazioa ez da pertsona bakar batzuek nahi duten zerbait, **Bermeon** sustatu eta bultzatu daitezkeen politika anitzetan agerian dagon ardura baizik.

c) Koordinaketa:

Argi dago edozein jarduera arlotan pertsona ezberdin ugari eta edozein mailako entitate ezberdinak parte hartzen dutenean ondo planifikaturiko koordinaketa ezinbestekoa dela. Ondorioz, nahitaezkoa da Bermeon lan egiten duten eta inmigrazio gaiarekin zerikusia duten entitate eta giza talde guztien arteko koordinaketa arina eta positiboa ezartzea.

Horrela eta ez beste era batean, baliabideak ez bikoiztea eta beharra nabarmenak agertzea saihestuko da. Horretarako, **jarduera protokolo argiak eta ondo definituak** ezarri daitezke, pertsona inplikatu guztiek **errespetatzen eta onartzen dituzten estrategietan oinarrituak**.

d) Normalizazioa:

Diskriminazioak eta zurrumurru eta hautemate faltsuak ekiditeko biderik onena, etorkinek dauden udal zerbitzuetara eskura unibertsala edukitzea da, normalizazioa bertan isladatuz, hau **ohiko dinamika eta praktika** izanik.

e) Berezkotasuna, salbuespen gisa:

Nahiz eta normalizazioa jarduera biderik onena izan, ezin daiteke alde batera utzi Bermeon inmigrazioa osatzen duten artean egoeraren araberako kasuak daudela edota zenbait taldeetara loturik dauden arazo pertsonal oso zehatzak daudela, berariazko programak edota esku-hartzeak eskatuko dituztenak. Dena dela, esku-hartze hauen **aplikazioa oso ondo definitua eta mugatua** egon beharko du, bai denborari dagokionean nola erabiltzaileak nor izan daitezkeen dagokionean.

f) Tokikoa izatearen azpimarraketa:

Nahiz eta Inmigrazio politikak administrazio eta instituzio ezberdinei dagokien eskumenen menpean egon, egia esan gertuen dagoen alorra, udalekoa, erabakigarria da etorkinen giza-integratioko dinamiketan benetan aurrera joateko. Eguneroko eta gertuko harremanetan da pertsona hauek dituzten zailtasunak ezagutzen direnean, hala nola konponbidea era errazenean jarri ahal zaienean. Hori dela eta, ondorengo Planean aukera guzti hauek ahalik eta gehien aprobetxatzeko apustua egiten da udal mailan dauden alde bateko eta besteko baliabideak era onenean erabiliz.

2.- Parte-hartze prozeduraren bilakaera

Ondorengo Plana udal mailako jardura orokorreko programa da, eta ondorioz, Plana gauzatzeko, beharrezkoa da Bermeon lan egiten duten hainbat eragileen, publiko eta pribatuen, eta nola ez, hiritarren inplikazioa. Ildo honetan, hasieratik bilatu den helburua honakoa izan da:

Bermeoko integrazioa eta bizikidetzaren hobetzeko, udalerrian bizi edo lan egiten duten nahi beste pertsonen hausnarketak eta ekarpenak jasoko lituzkeen agiria lortu.

Hori dela eta, udaleko teknikoek, hezkuntza zentro langileen, elkarte ordezkarien, Bermeoko bizilagunen, etorkinen eta abarren **partaidetza** Plan honen buruketaren **ARDATZ NAGUSIA** izan dela esan dezakegu.

Horrela, bileretan emandako partaidetza, hainbat gaien inguruan sorturiko eztabaidak eta hausnarketak eta, azkenik, hobekuntzarako eginko proposamenak, nagusi izan dira Planaren idazketan. Hala eta guztiz, gure ustez partaidetza eta inplikazio hauek ez dira agortu behar, hemendik aurrera baitira guztiz beharrezkoak.

Hori dela medio, azpimarratu beharra dago Plana egitearen prozesuak bukatzeak ez duela esan nahi Inmigratio Batzordea osatzen duten pertsonen jardura eta inplikazioa bukatu behar denik. Plana, berez, ez da helburua, abiapuntua eta eusgarria baizik, jardura zehatzak eta hautemangarriak garatzeko, udalean integrazioa eta bizikidetzaren hobekuntzarako urratsak eman ahal izateko. Beraz, Plana onartzeaz gain, beharrezkoa izango da bertan jasotzen diren jardueretako pertsona eta eragile inplikatuak konpromisoa, jardura horiek arrakastaz gauzatzeko.

Laburbilduz, partaidetzaren **emaitza, jardura proposamenen bilduma da**, hauek **talde heterogeneo eta ireki baten eztabaida eta adostasunetik jaiotzen direlarik**. Horrela, taldea osatzen zuten kideak, alde batetik, Bermeoko bizikidetzaren hobetzeko asmoz bere iritziak eta ikuspuntuak emateko prest egon dira eta bestetik, egindako proposamenetan inplikatzeko eta beraienganako konpromisoa hartzeko prest daudela adierazi dute.

2.1. Tokiko Inmigratio Batzordea.

Plan hau egiteko partaidetza Tokiko Inmigratio Batzordearen bitartez bideratu da. Jarraian, honen helburua, osaketa eta funtzionamendua azaltzen dugu:

◆ Helburua

Plana idazteko aholkulari arduradunak joanez, Batzorde honen helburua Bermeon inmigrazio eta integrazio arloan aurrera eramateko lehentasunezko jarduerak **eztabaidatzea eta adostea** izan da, **eztabaida** horretan udalerrian fenomeno honen inguruan dauden **ikuspuntu eta ikuspegi ezberdinak** azalduz.

Horrela, Batzorde honen bitartez inmigrazio arloan lan egiten hasi behar diren zein esparru identifikatzen saiatu gara, betiere oso agerian edukiz Bermeon fenomeno honek eduki ditzaken errealitate eta ezaugarritasun zehatzak.

Horretarako, Batzorde hau lan talde bezala osatu zen, ondorengo ezaugarriekin:



- ✓ Interesatuak zeuden pertsona guztien partaidetza irekiarekin;
- ✓ ahalik eta ikuspuntu eta ikuspegi gehieneko talde **heterogeneo eta erakusgarria** izanik.
- ✓ **gardena**, inmigrazio arloan jarduera praktikoa eta errealistak lortzeko era bakarra denak arlo honi buruzko iritziak eta ardurak adierazteko libreak izan behar direla argi izanik.

Laburbilduz, Tokiko Inmigrazio Batzordea, berez, integrazioko eta bizikidetzako lehenengo esperientzia bat izatea nahi zen: elkartrukeko **topa-gune** bat sortzea jatorri, ikuspegi eta sentsibilitate ezberdinen arteko pertsoez osatua, denen helburua Bermeoko biztanleriaren integrazio eta bizikidetzak hobetzera laguntzeko jarduera zehatzak eztabaidatu eta adostea izanik.

◆ **Osaketa.-**

Esanenez, Batzordea parte hartzean interesatua egon den edozein pertsona edota eragileari irekia egon den lan taldea bezala mantendu da prozedura guztian, bertan Bermeoko errealitatea osatzen duten alor ezberdinetako ordezkariak egon zitezela saiatuz, bere ikuspuntu eta ikuspegi ezberdinekin.

Horretarako ondorengo **deialdi formulak** erabili dira:




- ◆ **Deialdi publiko orokorra**, Bermeoko Inmigrazioari buruzko Diagnostikoaren aurkezpena dela eta, Nestor Basterretxea aretoan ospatu zen topaketa.
- ◆ **Aldizkako deialdiak**, udal saileko arduradunei eta Bermeoko hezkuntza zentroko zuzendaritzei zuzenean bidaliak.
- ◆ **“Inplikazioa sarean”**: Batzordeko kideak beste pertsona batzuk gonbidatu dituzte, bere partaidetza interesgarria izan litzatekeela pentsatuz.
- ◆ **Deialdi zehatzak**, lorturiko emaitzak talde/intereseko alorrekin (errumaniarrak;udal sailak) egiaztatzeko.

Batzorde barnean bertan eginiko lana eta jardueri, honakoak gehitu zaie:

- a) **Parte-hartze prozeduran errumaniarrak sartzea:** Bermeon bizi diren etorkinen artean, talderik kopurutsuena dela eta, Batzordeak erabakitzen du eztabaidaturiko gaiei buruz bere iritzia zehatza gehitzea. Horretarako, eta bileretan beraiek egoteko zeuden zailtasunak ikusita, jatorri honetako talde bati deialdi zehatza egiten zaio, Batzordeak eginiko proposamenak egiaztatzeko eta onartzeko.
- b) **Udaletxean eginiko bukaerako aurkezpena eta eztabaida:** Nahiz eta udaleko saila guztiei prozesuan eman diren urratsez informatu, eta horietako batzuek Batzordeko bileretan parte hartu arren, komenigarria ikusten da Udaletxean bertan azkeneko aurkezpen saio bat egitea. Horrela, saila guztiek Batzordeko azken proposamenak ezagutu ahalko dituzte, eta egokia iruditzen zaien edozein komentario edo iradokizun egin ahalko dute.

Aurrekoa abiapuntutzat izanik, Planaren idazketan parte hartu duten eragileen laburpena honakoa izango litzateke:

PLANA EGITEN PARTE HARTU DUTENAK



2.2. Lan metodologia

◆ Faseak.-

Ondorengo Plana egiteko lana ondorengo fasetan banandu da:

1ª) Lan-jardueren identifikazio eta eztabaida:

Batzordeak immigrazio arloan Bermeen ekin behar zaien jarduera arlo ezberdinak proposatu eta eztabaidatzen ditu. Horrela, lehentasuneko ildoak aurkituko ahalko dira, hauek Planean azalduz. Era berean, ildo bakoitzerako aurrera eramateko ekintza zehatzak definitzen dira.

Fase hau 2008ko ekaina eta azaro bitartean garatu da, Batzardea hamabost egunero bilduz.

2ª) Proposamenen Zirriborroa Egin:

Lehenengo fasean jasotako iritzi eta ekarpenetan oinarrituz, aholkulariek Batzardeari proposamen-zirriborro bat aurkezten dio.

Fase hau 2008ko azaroan zehar garatzen da.

3ª) Azkeneko Proposamenen eztabaida eta onetsia

Proposamena taldeka aztertuko da, bukaerako definizio eta onetsirako. Proposamena, horrela adostua, eta behin errumaniarren taldearekin egiaztatu ondoren, Batzardeko Azken Proposamenen Ageri bezala onartzen da.

Azken proposamen hauek Udaletxeko sailekin eginiko bilera zehatz batean aurkeztu eta eztabaidatzen dira, udalen arduradunek ezagutu ditzaten eta egokiak deritzoten ekarpenak egin ditzaten.

Fase hau 2008ko azaroaren eta 2009ko otsailaren bitartean garatzen da.

4ª) Behin betiko Planaren idazketa eta aurkezpena (gero esparru honetan ekintzak garatzeko erreferentzia-agiri gisa)

Azkenik, aholkulariek Planaren behin betiko agiria idazten du.

Fase hau 2009ko otsailean garatzen da.

◆ Ospaturiko bilera eta topaketak

2008ko maiatzean Plana egiteko prozeduraren hasiera iragartzen denetik, 2009ko otsailean Udaletxeari Batzardearen Azken Proposamenak aurkeztu arte, zenbait bilera ospatu dira. Hauen bitartez, oso ezberdinak diren pertsona eta eragileak jarri dira harremanetan, denon ekarpenak eta inplikazioak funtsezkoak izanik Bermeoko integrazioa eta bizikidetzaren hobetzeko.

Horietako bilera bakoitzean, aurretik ezarritako metodologia eta gaia jarraitu dira, betiere bere planteamendua parte hartzaileen ekarpen guztiak sartzeko nahi beste malgua izan delarik. Horrela, topaketa hauen bitartez, denon arteko ezagutza eta hausnarketa bultzatu da, inmigrazio fenomenoaren integrazio eta sentsibilizazioan ezinbestekoak diren gaien inguruan.

Bilera horien emaitza, lehen azaldu den bezala, ondorengo Plana da eta bertan jasotzen diren jarduera proposamenak. Hala eta guztiz, jarraian laburpen gisa, ospatu diren bileren eta bilera horietan aztertu diren gaien eta proposamen nagusien zerrenda aurkezten da:

LAN TALDEEN ETA BILEREN ZERRENDA

Zbk°	Data	Alorra	Gai nagusia	Proposamenak/Adostasunak
1	2008/05/29	Nestor Basterretxean eginiko saioa	Diagnostikoaren aurkezpena eta Inmigrazio Plana egiteko prozesuaren hasieraren iragarpena	Gonbidapen publikoa hiritarrei eta eragileei, Planaren buruketan parte hartzeko.
2	2008/06/19	Inmigrazio Batzordea	Aurkezpen bilera.	Batzordearen helburuak eta lan metodologia. Planaren 5 gai ildoen onarpena.
3	2008/10/01	Inmigrazio Batzordea	Inmigrazio eta gizarte laguntzak	Hobekuntza proposamenak: Informazio argia eta zorrotza. Iruzurraren segimendua eta kontrola.
4	2008/10/16	Inmigrazio Batzordea	Inmigrazioa eta lana.	Hobekuntza proposamenak: "Lan Kulturaren" informazioa eta orientazioa. Sentsibilizazioa eta iritzi publikoa.
5	2008/10/30	Inmigrazio Batzordea	Sentsibilizazioa, integrazioa eta bizikidetzak	Hobekuntza proposamenak: Lana sarean. Harrera sistema. Hezkuntza alorra
6	2008/11/13	Inmigrazio Batzordea	Euskalduntzea eta kulturartekotasuna	Euskara sailak orain arte garatutako lanarekin bat etorri. Proposamenak: Elkarteko ezagutza; koordinaketa eta lana sarean. Udalerria egokituak dauden ekintzak. Beste esperientzia eta praktika arrakastatsuen ezagutza.
7	2008/11/27	Inmigrazio Batzordea	Lan saioa: Batzordearen azken proposamenak.	Planeko gai ildo bakoitzerako ekintza zehatzen proposamenen agiria.
8	2009/01/29	Errumaniarren taldea	Bermeon bizi diren errumaniarren taldearen egiaztatzea.	Batzordeak eginiko proposamenen onarpena.
9	2009/01/05	Udaletxea	Udal sailekin egiaztatzea	Batzordeak eginiko proposamenen onarpena erreferentzia-agiri gisa.

Begiratu 1. eta 2. Eranskinak

3.- Ekintza programa

3.1. JARRAIBIDE LERROAK

Ez dago zalantzarik Ekintza Programa jarraitu den azterketa eta eztabaida guztiaren **emaitza eta hausnarketa prozesuaren zehaztasun praktikoa** dela. Programak ibilbide argi eta eraginkorra irudikatu nahi du, honen bitartez Bermeoko bertoko biztanleriaren eta atzerritarren arteko benetako integrazio eta gizarte bateratze baten lortzearen erronkan era hautemangarrian aurrera joan ahal izateko.

Oso argi izan behar dugu Ekintza Programa honek ez duela pikutara bidali nahi orain arte egindako lana, guztiz kontrakoa: Egin nahi dena orain arte egindako **ahaleginak koordinatzea, indartzea eta bultzatzea da, erreferentzi marko bat** eskainiz non nahi beste pertsona eta eragile biltzen diren.

Bestaldetik, proiektua bideragarria izan dadin, parte-hartzean oinarritzeaz gain, Ekintza programak hainbat jarraibide lerro errespetatu nahi ditu, programa ondorengo ezaugarriak edukiz:

- ◆ **Denboran mugatua:** Lau urteko epeaz hitz egiten da, hasiera eta bukaera ondo definituak egonik.
- ◆ **Errealista:** Eskuragarriak diren helmugak eta helburuak ezarri dira, proposatutako ekintzetan kontuan izan baitira eskuragarri dauden edo egon daitezkeen eskumenak, gaitasunak, baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak. Ildo honetan, une guztian ondorengo galderari erantzun zaio: *“Ze gauza zehatzak egin edo planteatu daitezke alor honen barnean egunean Bermeon?”*
- ◆ **Zehatza:** Oso perfilatuak eta errez nabarmendu daitezkeen ekintzak planteatzen dira, borondate adierazpenak gaindituz.
- ◆ **Zeharkakoa:** Esku-hartzeak aztertu eta proiektatzerakoan, aukeraturiko bost alorren arteko elkarlotura izan da kontuan.
- ◆ **Genero ikuspegiarekin:** Aspektu askotan emakumeek gizonekiko duten errealitateak inplikatzan dituen zehaztasunak agerian eduki dira.
- ◆ **Neugarria:** Fidagarriak eta eskuragarriak izan daitezkeen nahi beste ebaluaketa parametro eta baremo ezarri dira, planaren betetzearekiko egiten diren ondorengo ebaluaketak ahalik eta objektiboak izan daitezen, ikuspegi subjektiboak ahalik eta gehien neutralizatuz.

3.2. PROPOSATURIKO EKINTZEN KUADROA

Jarraian, fitxa eran, proposaturiko ekimenak jasotzen dira:

Bermeoko Tokiko Inmigrazio Planeko 2009-2012 EKINTZA PROGRAMA



- EKINTZA FITXAK
- EKINTZEN KRONOGRAMA
- GAUZATZEAREN KOADROA

Oharra:

Programa honek Inmigrazio Tokiko Batzordeak egindako eta prozesuan udal saileei ezagutarazitako proposamenak biltzen ditu. Bere helburua gero esparru honetan ekintzak garatzeko **erreferentzia eta orientazioa** izatea da.

1. GIZARTE-LAGUNTZEI BURUZKO INFORMAZIOA ETA AZALPENA

1.1.	Hiritarrentzako informazio-iturri berriak sortzea
Deskribapena	<p><u>Helburua:</u></p> <p>Informazio-iturriak sortzea edo bideratzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hiritarrei gizarte-laguntzei buruzko informazio argia, hurbilekoa eta ulertteraza emateko. Informazio horren bitartez, horrelako laguntzak emateko irizpideak zein diren eta laguntzok norainokoak diren argitzeko. • Aldi berean, informazio-iturri horiek erabiltzea kasuistika positiboa zabaltzeko. <p><u>Ekintza zehatzak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Edukiak, hots, igorri nahi den informazioa, zehaztea. <input type="checkbox"/> Komunikabideak zehaztea: lehendik dauden informazio-iturriak aprobetxatzea, berriak sortzea, iturri berrien eta zaharren estrategia konbinatua diseinatzea... <input type="checkbox"/> Diseinatutako iturriak inplementatzea.
Burutzeko epea	2009-2010
Aldizkakotasuna	Ekintza puntuala, geroko informazio-iturrien "elikadura" gatik.
Parte hartu luketeen eragileak	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Gizarte Ongizateko Udal Patronatua. <input type="checkbox"/> Beste udal-sail batzuk (Informatika, Herritarren arreta-gunea...), informazio-iturrien euskarriaren arabera. <input type="checkbox"/> Elkarteak eta beste foro batzuk, estrategia herritarrekin beraiekin egiaztatu, balioztatu eta ebaluatu ahal izateko.
Aurrekontua eta finantzaketa	<p>Ekintza honen kostua 0 izan daiteke udalerrian badauden iturriak egokitzean badatza, nahiz eta komunikazio-enpresa batengana jotzea ere posible den, kanpoko aholkularitza jasotzeko edota difusio-ekintzaren bat egiteko.</p> <p>Kasu horretan, finantzaketa-iturriak izan daitezke:</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Udala (udal baliabideak). <input type="checkbox"/> Eusko Jaurlaritza (dirulaguntza-ildoak: Immigrazioa, Gizarte Zerbitzuak...).
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Sortutako edota egokitutako informazio-iturriak. <input type="checkbox"/> Jasotzaile-kopurua.

1.2.	Iruzurraren arazoa sakon aztertzea
Deskribapena	<p><u>Helburua:</u></p> <p>Gizarte-laguntzekin lotutako iruzurraren arazoa zehatz-mehatz aztertzea, arazo hori Bermeon nola dagoen jakiteko informazio objektibo eta bakarra jasotzeko eta horren ondorioz jardun eta informatu ahal izateko.</p> <p><u>Ekintza zehatzak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Gizarte-laguntzetan dagoen egungo iruzurra ahal den neurrian aztertzea eta zenbaterainokoa den zehaztea. <input type="checkbox"/> Iruzurrari aurre egiteko Udalak gaur egun dituen baliabide guztiak identifikatzea, udalak alor horretan dituen eskumena eta gaitasuna zehaztuz. <input type="checkbox"/> Hala dagokionean, hobetu daitezkeen alderdiak eta jarduteko aukerak identifikatzea, arazo horren kontrol handiagoa izateko. <input type="checkbox"/> Informazio hori igortzea eta zabaltzea, mezu argiak, bateratuak eta koherenteak erabiliz. [1.1. Ekintzarekin lotuta]
Burutzeko epea	2010-2011
Aldizkakotasuna	Ekintza puntuala, honetatik ekintza-proposamen berriak sor daitezkeen arren.
Parte hartu luketeen eragileak	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Gizarte Ongizateko Udal Patronatua. <input type="checkbox"/> Etorkin taldearen errealitatea eta bereiztasunak ondo ezagutzen dituzten elkarteak / erakundeak.
Aurrekontua eta finantzaketa	Parte-hartzaileen ordu-dedikazioaz aparte, ekintza honen kostuak ez luke finantzaketa berezirik beharko.
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Diagnostiko barne-dokumentua. <input type="checkbox"/> Informazioa kanpora hedatzeko ekintza-kopurua.

1.3.	Udalaren eta gizarte-sareen arteko elkarlana sendotzea
Deskribapena	<p><u>Helburua:</u></p> <p>Udalak gizarte-laguntzei buruz dakiena eta egiten duena optimizatzea, Bermeoko gizarte-sareekin harremanak izanez eta elkarlanaren arituz.</p> <p><u>Ekintza zehatzak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Laguntzen alorrean gaur egun Udalaren gizarte-zerbitzuekin elkarlanean aritzen diren eragileak identifikatzea, eta elkarlanean aritzeko interesgarriak izan daitezkeen beste batzuk aztertzea (immigranteen elkarteak, adibidez). <input type="checkbox"/> Deialdia egitea, aurkitutako erakundeekin harremanetan jartzeko. <input type="checkbox"/> Erakunde horiekin batera, gizarte-laguntzetan elkarlanean aritzeko eta jarduera hobetzeko dauden aukerak aztertzea.
Burutzeko epea	2009-2010
Aldizkakotasuna	Ekintza puntuala, honetatik ekintza-proposamen berriak sor daitezkeen arren.
Parte hartu luketeen eragileak	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Gizarte Ongizateko Patronatuak. <input type="checkbox"/> Alor jakin horretarako interesgarritzat jotzen diren Bermeoko udalaz kanpoko elkarteak eta erakundeak.
Aurrekontua eta finantzaketa	Parte-hartzaileen ordu-dedikazioaz aparte, ekintza honen kostuak ez luke finantzaketa berezirik beharko.
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Patronatuarekiko lankidetzan dauden / egon daitezkeen egileen zerrenda. <input type="checkbox"/> Elkarrekiko azterketa egiteko bilera-kopurua. <input type="checkbox"/> Konklusio-dokumentua.

2. LAN ESPARRUKO ZAILTASUNEN AURRE EGITEKO LAGUNTZA

2.1.	Laneko informazioko eta orientazioko tresnak sendotzea
